

TORMENTAS. 9 DE SEPTIEMBRE

Durante la tarde del 9 de septiembre, Álava y Gipuzkoa se ven afectadas por tormentas fuertes a muy fuertes acompañadas de granizo, y por fuertes rachas de viento. Las tormentas se desarrollan al norte de la ciudad de Burgos, formándose rápidamente una línea convectiva muy activa en dirección SW- NE. La sucesión de tormentas se mantiene activa durante toda la tarde y gran parte de la noche, afectando también el este de Bizkaia.

Las fuertes tormentas vienen acompañadas de intensas precipitaciones, destacando los 35 mm en 30 min en Iturrieta (ver figura 7.3), al este de Álava, y los 34,5 mm en 1 hora en San Prudentzio (ver figura 7.4). También se producen tormentas de granizo de tamaño considerable (más de 2 cm de diámetro). El viento adquiere un protagonismo especial en Álava, con rachas muy fuertes, destacando Vitoria con 90,7 km/h, Zarautz con 94,7 km/h y Salvatierra con 95,8 km/h.

La situación sinóptica se caracteriza por un embolsamiento de aire frío en niveles altos al oeste de la Península Ibérica, con una vaguada marcada de eje próximo a Galicia. Los niveles bajos, por su parte, muestran una advección cálida con una temperatura de 20 °C penetrando por la Ribera, con un importante gradiente de temperaturas entre Galicia y Navarra. La configuración es de una extensa dorsal sobre Centroeuropa y una vaguada muy desdibujada sobre el oeste de la Península. En superficie la situación es de pantano barométrico.

EKAITZAK. IRAILAREN 9A

Irailaren 9ko arratsaldean zehar, Araban eta Gipuzkoan ekaitz gogorak eta oso gogorak jaso ziren, txingorrarekin eta haize-bolada gogorrekin. Ekaitz hauek Burgos hiriaren iparraldean garatu eta berehala SW-NE norantzako lerro konbektibo bizi bat eratu zen. Ekaitz-segida horren eragina arratsaldean eta gau ia osoan zehar mantendu zen, Bizkaia ekialdean ere eragina izan zutelarik.

Ekaitz bortitz hauekin batera prezipitazio gogorak erori ziren; Iturrietan 35 mm 30 minututan (ikus 7.3 irudia) eta San Prudentzian 34,5 mm ordu betean (ikus 7.4 irudia). Txingor-tamaina handiko (2 cm baino diametro handiagoa) ekaitzak ere eman ziren. Haizea protagonista berezia izan zen Araban, bolada oso gogorrekin; Gasteizen 90,7 km/h neurtu ziren, Zarautzen 94,7 km/h eta Agurainen 95,8 km/h.

Iberiar Penintsularen mendebaldean geruza altuenetan zegoen aire hotzez osatutako poltsak baldintzatu zuen egoera sinoptikoa, ardatza Galizan zuen aska sakon batekin. Maila baxuek, 20 °C-ko adbezio bero bat erakusten zuten Erriberatik sartzeko, tenperatura-gradiente handi batekin Galiza eta Nafarroa artean. Egitura ondokoa zen: dorsa zabal bat Erdialdeko Europan eta aska ez oso garbi bat Penintsularen mendebaldean. Azaleko egoera, aldiz, aintzira-barometriko bati zegokion.




Figura 7.1. Precipitación acumulada en 1 h el 09/09/2004.
7.1 irudia. Ordu betean pilatutako prezipitazioa, 2004/09/09an.




Figura 7.2. Precipitación acumulada en 24 h el 09/09/2004.
7.2 irudia. 24 ordutan pilatutako prezipitazioa, 2004/09/09an.




Figura 7.3. Precipitación registrada en Iturrieta el 09/09/2004.
7.3 irudia. Iturrietan jasotako prezpitazioa, 2004/09/09an.




Figura 7.4. Precipitación registrada en San Prudentzio el 09/09/2004.
7.4 irudia. San Prudentzian jasotako prezpitazioa, 2004/09/09an.




Figura 7.5. Velocidad del viento en Vitoria, Zarautz y Salvatierra el 09/09/2004. 7.5 irudia. Haize-abiadura Gasteizen, Zarautzen eta Agurainen, 2004/09/09an.




Figura 7.6. Presión al nivel del mar y frentes, y geopotencial e isotermas a 850 y a 500 hPa. 09/09/2004 18 UTC.

7.6 irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak, eta geopotenziala eta isotermak 850 eta 500 hPa-etara. 2004/09/09 18tan UTC.